

**2022KO MAIATZAREN 31EAN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2022ko maiatzaren 31ean arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*2022-03-29ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

*2022-05-10eko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

**2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO MARTXOAREN 23TIK
2022KO MAIATZAREN 23RA (2022/85 - 2022/135).**

Alkatetzak 2022ko martxoaren 23tik 2022ko maiatzaren 23ra bitartean (2022/85-2022/135) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- IRURAKO AREA 20-2 IBAIONDO IZENEKO EREMUAN, HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIETAKO A-27 EREMUARI ERAGITEN DION LURZATIAREN ZATI BATZUEN DESAFEKTAZIOA PROZEDURAREKIN JARRAITZEA.

Alkateak hartu du hitza eta gaiaren inguruko azalpenak eman ditu;

HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA

Espediente zkia: 2021HIRI0009

Gaia: Udal jabetzako lursail baten desafekzioa eta permuta Irurako arau subsidiarioen 27 eremuan, hirigintza hitzarmenaren baitan. Area 20-2 Ibaiondo.

2022ko apirilaren 13an argitaratu zen 71 zk. GAO aldizkarian Irurako Area 20-2 Ibaiondo izeneko eremuan, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-27 eremuari eragiten dion lurzatiaren zati batzuk desafektatzea.

Ez da inolako alegaziorik aurkeztu eta prozedurarekin jarrai daiteke.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2022ko maiatzaren 31an egindako bilkuran, Plenoari ondoko erizpenaren onespena proposatzen dio:

ERABAKI PROPOSAMENA

LEHENA: : Aipatu prozedurarekin jarraitzea onartzea.

BIGARRENA: Aipatu prozedurarekin jarraitzeko, Gorka Murua Macuso Jn. Ahalduntzea.

**Irura, 2022ko maiatzaren 31an
Hirigintza eta Ogasun Batzordeko Idazkariak,**

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

4.- 5.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO UDALERRIEKIN SINATZEKO HITZARMENAREN PROPOSAMENA, UDAL ESTALKIETAN EGUZKI PANEL FOTOVOLTAIKOAK JARTZEKO AUTOKONTSUMO PARTEKATUKO ERREGIMENEAN, TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEEN BIDEZ.

Alkateak hartu du hitza, hitzarmen honen baitan Gipuzkoako herri mailako proiektu bateratu bat egin nahi dela azaldu du.

Hitzarmen honetan, Udalak hartu beharreko konpromezua jasotzen da, hau da 25 urtez udal estalkien zesia, Irurako Udalaren kasuan, trinketea eta frontoiko estalkia erabiliko dira (lehenengo fase honetan, kultur etxeko eta kanposantuko estalkiak ez dira sartuko). Finantzaketari begira, Europa funtsetatik %30 eta Gipuzkoako Foru Aldunditik %70 izango da.

Gipuzkoako 21 herriek partehartuko dute proiektu honetan, Irurako kasuan 38.000 kW/urteko sortzeko ahalmena izango dela aurreikusten da.

Halaber, komunitatearen nondik norakoak eta hartu beharko diren erabakiak aipatu ditu. Jarraian bozketari ekin diote batzarkideak.

5.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO UDALERRIEKIN SINATUTAKO HITZARMENA, UDAL ESTALKIETAN EGUZKI PANEL FOTOVOLTAIKOAK JARTZEKO AUTOKONTSUMO PARTEKATUKO ERREGIMENEAN, TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEEN BIDEZ

CONVENIO CON 21 AYUNTAMIENTOS DE MENOS DE 5.000 HABITANTES PARA LA INSTALACIÓN DE PANELES SOLARES FOTOVOLTAICOS EN CUBIERTAS MUNICIPALES EN RÉGIMEN DE AUTOCONSUMO COMPARTIDO A TRAVÉS DE COMUNIDADES ENERGÉTICAS LOCALES

Donostia, 2022ko
San Sebastián, .. de de 2022

ELKARTU DIRA

Alde batetik, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatua, JOSE IGNACIO ASENSIO BAZTERRA jauna, Foru Aldundiaren legezko ordezkaria.

Eta bestetik,ko Udaleko alkatea, Udalaren legezko ordezkaria.

Bi esku-hartzaileek lankidetzaz hitzarmen hau egiteko legezko gaitasuna aitortzen

REUNIDOS

De una parte, D. JOSÉ IGNACIO ASENSIO BAZTERRA, en su condición de Diputado del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y en representación legal de la misma.

Y de la otra,, en su condición de Alcalde/sa del Ayuntamiento de, y en representación legal del mismo.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente Convenio de

diote elkarri, eta horretarako, hau

Colaboración y a tal efecto,

AZALTZEN DUTE

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, klima aldaketaren aurkako borrokarekin eta jasangarritasun energetikoarekin duen konpromisotik abiatuta, abenduaren 21eko 14/2021 Foru Dekretuaren bidez onartutako 2050erako Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiaren helburutzat dauka, besteak beste, Gipuzkoan energiaren lehen mailako ekoizpena areagotzea –eta energia mendekotasuna murriztea–, eraikinetan eta hirigintzako jarduketan unitateetan kokatutako autokontsumorako energia sorkuntza banatuko ereduaren bidez, iturri berriztagarrien eta lagungarri diren jasangarritasun energetikoko beste teknologia batzuen erabileran oinarrituta, ezarpen-eredu jasangarriak, negozio publiko-privatuko ereduak baliatuz eta arreta berezia jarriz Gipuzkoako gizartearen interes orokorrean.

Ekintza horien ildotik, ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren bidez, onetsi zen IDAEk zuzenean autonomia erkidegoei laguntzak ematea hainbat pizgarri-programa gauzatzeko, besteak beste, energia iturri berriztagarriko autokontsumoarekin eta biltegitratzearekin lotutakoak, eta etxebizitza sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzearekin lotutakoak. Hori guztia Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta, hala, Euskal Autonomia Erkidegoari 37.173.437 euroko dirulaguntza eman zitzaion.

EEEk dirulaguntza hori onartu ondoren, 2021eko irailaren 22an eman zuen Ebazpenaren bidez, energia iturri berriztagarriko autokontsumoarekin eta

EXPONEN

La Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa (en adelante DGMA), desde su compromiso con la lucha contra el cambio climático y la sostenibilidad energética, contempla como uno de los objetivos de la Estrategia de Sostenibilidad Energética de Gipuzkoa 2050, aprobada mediante Decreto Foral 14/2021, de 21 de diciembre, impulsar el aumento de la producción primaria de energía en Gipuzkoa –y la reducción de su dependencia energética- a través del modelo de generación distribuida de energía para autoconsumo en edificios y unidades de actuación urbanística, en base a la utilización de las fuentes renovables y otras tecnologías de sostenibilidad energética de apoyo con modelos de implantación sostenibles, de negocio público-privados, con especial atención al interés general de la sociedad guipuzcoana.

En línea con dichas acciones, mediante Real Decreto 477/2021, de 29 de junio, se aprobó la concesión directa por parte del IDAE a las comunidades autónomas de ayudas para la ejecución de diversos programas de incentivos ligados al autoconsumo y el almacenamiento, con fuentes de energía renovable, así como a la implantación de sistemas térmicos renovables en el sector residencial, todo ello en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, habiéndose concedido a la Comunidad Autónoma del País Vasco una subvención de 37.173.437 euros para el conjunto de los programas.

Tras la aceptación de dicha subvención por parte de EVE, mediante Resolución de dicha entidad 22 de septiembre de 2021 se aprobaron, convocaron y publicaron

biltegiatzearekin lotutako pizgarrien programaren oinarri arautzaileak onartu, deitu eta argitaratu zituen.

Trantsizio ekologikoa eta lurralde kohesioa dira aipatutako planaren politikak bideratzen dituzten ardatzetako batzuk. Plan horretan, landa eremuetara eta udalerrri txikiak bideratutako neurriak aurreikusten dira, bereziki erronka demografikoa duten udalerrietara (5.000 biztanletik beherakoak); izan ere, udalerrri horiek lehentasunezko kolektiboa dira jatorri berriztagarria duten energiak eta autokontsumoa sustatzeko laguntza espezifikoak ezartzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, bai eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1 artikuluan aurreikusitakoa ere, non jasotzen baita aldundiek eskumena dutela ekonomia- eta kudeaketa-gaitasun txikiagoa duten udalerriei laguntza eta lankidetzak juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa emateko; 2021eko uztailaren 1ean bilera telematikoa egin zen, eta bertara 5.000 biztanletik beherako Gipuzkoako udal guztiak gonbidatu ziren. Bilera horretan plan bat aurkeztu zen: udalerriko estalki publikoetan eguzki panel fotovoltaikoak instalatzea, tokiko energia komunitateak eratzea eta instalazio horiek 5 urtez ustiatzea; hori guztia Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren kontura eta kontratazio bakarrean oinarrituta egingo litzateke, kostuak murrizteko aukera emango duen zerbitzuen kudeaketa koordinatu eraginkorrago lortuz.

21 udalek (besteak beste, zuk zuzentzen duzunak) aldeko erantzuna eman ondoren, 2021eko azaroaren 11n, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak EEEri aurkeztu zizkion dagozkion laguntza eskaerak, eta,ren ..ean EEEko zuzendari nagusiaren ebazpena jaso zen, zeinaren

las bases reguladoras del programa de incentivos ligado al autoconsumo y al almacenamiento, con fuentes de energía renovable.

Tanto la transición ecológica como la cohesión territorial son algunos de los ejes que orientan las políticas del citado Plan, en el que se prevén medidas orientadas a zonas rurales y pequeños municipios, especialmente a los denominados municipios de reto demográfico (menores de 5.000 habitantes), los cuales constituyen un colectivo de prioridad sobre los que establecer ayudas específicas para el fomento de energías de origen renovable y el autoconsumo.

Teniendo en cuenta lo anterior, así como lo previsto en el artículo 36.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, que contempla la competencia de las Diputaciones en prestar asistencia y cooperación jurídica, económica y técnica a los municipios de menor capacidad económica y de gestión, con fecha 1 de julio de 2021 tuvo lugar una reunión telemática a la que fueron invitados todos los ayuntamientos de Gipuzkoa de menos de 5.000 habitantes, en la que se presentó un Plan consistente en la instalación de paneles solares fotovoltaicos en cubiertas públicas del municipio, constitución de comunidades energéticas locales (en adelante CEL) y explotación de dichas instalaciones durante 5 años, todo ello a cargo de la DGMA, y en base a una contratación única, logrando una gestión coordinada más eficiente de los servicios que permita reducir los costes.

Habiendo recibido una respuesta positiva por parte de 21 Ayuntamientos, entre ellos el que Vd. preside, con fecha 11 de noviembre de 2021, la DGMA presentó ante el EVE las correspondientes solicitudes de ayudas, habiéndose recibido con fecha de Resolución del

bidez erabakitzen baita GFari
euro ematea
proiekturako. Zenbateko hori
instalazioaren kostuaren % 38 da, eta
Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak nahiko
kreditu dauka bere aurrekontuan
aipatutako kontratazioaren guztizko
kostuak, gainerako % 62a, osatzeko.

Ondorioz, adierazitako ekimena
gauzatzeko lankidetzaren esparrua eta bi
alderdiek beren gain hartuko dituzten
betebeharrak ezarri behar dira.

Eragiketa osoari estaldura emango dion
Kontseiluaren erabakia aipatu.

Director General del EVE por la que se
acuerda conceder a esta DFG la cantidad
de Euros en relación con el
proyecto, que constituye el 38%
del coste de la instalación, teniendo
consignados en el presupuesto de la
DGMA los créditos suficientes para
completar los costes totales de la citada
contratación por el correspondiente 62%.

Procede, en consecuencia, establecer el
marco de colaboración y las obligaciones
que asumen ambas partes a fin de llevar a
cabo la iniciativa expuesta.

Citar el acuerdo de Consejo que dará
cobertura a toda la operación.

KLAUSULAK

Lehenena.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da Gipuzkoako
Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza
Nagusiaren etako Udalaren arteko
lankidetzaren baldintzak arautzea, udalerrin
horretako (udal eraikin publikoak aipatu)
estalkian eguzki energia fotovoltaikoko
(instalazio kopurua) instalazioak jartzeko,
tokiko energia komunitate baten bidez
ustia daitezen.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen dituen betebeharrak.

- a) Ingurumen Zuzendaritza Nagusia arduratu-
ko da eguzki instalazio fotovoltaikoak disei-
natu eta egikaritzeaz, eta konpromisoa har-
tuko du obra horiek kontratatzeke beha-
rrezko administrazio izapideak egiteko,
obrak hasten direnetik jasotzen diren arte,
eta, era berean, obraren zuzendaritza tekni-
koaren eta obrak zuzen eta erabat gauza-
tzeko behar diren izapide guztiak betetzea-
ren ardura izango du. Horretarako, obraren fi-
nantzaketa osoa bere gain hartuko du,
Energiaren Euskal Erakundeak proiektu ho-

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del Convenio.

Es objeto del presente Convenio regular
las condiciones de colaboración entre la
Dirección General de Medio Ambiente de
la Diputación Foral de Gipuzkoa y el
Ayuntamiento de tal para la instalación de
(número de instalaciones) de energía
solar fotovoltaica en la cubierta de (citar
los edificios públicos municipales) de ese
término municipal para su explotación a
través de una comunidad energética local.

Segunda.- Obligaciones que asume la Diputación Foral de Gipuzkoa.

- a) La DGMA se encargará del diseño y ejecu-
ción de las instalaciones solares fotovoltai-
cas, comprometiéndose a llevar a cabo la
tramitación administrativa para la contra-
tación de dichas obras, desde su inicio has-
ta su recepción, siendo responsable, asi-
mismo, de la dirección técnica de las obras
y del cumplimiento de todos los trámites
precisos para la correcta y total ejecución
de las mismas. Para ello, asumirá la finan-
ciación total de las obras, con cargo a la
subvención recibida por el EVE para dicho

rrerarako jasotako dirulaguntzaren kargura (kostuaren % 38) eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuko funts propioen kargura (gainerako ehunekoa).

Eguzki instalazio fotovoltaikoak foru titulartasuneko herri jabariko ondasunak izango dira, eta "erabiltzeko prest" modalitatean gauzatuko dira, honako hauek jasoz: egikaritze proiektua edo memoria teknikoa, ekipoen eta materialen hornidura, instalazioa, monitorizazioa, administrazio izapideak, martxan jartzea eta 5 urteko mantentze kontratua, instalazioa funtzionatzen hasten denetik zenbatzen hasita.

- b) Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak bultzatuko du tokiko energia komunitate bat eratzea udalerrian, irabazi asmorik gabeko erakundea, udalerriko herritarren eta merkatarien partaidetza irekian eta borondatezkoan oinarritua. Partaide horiek, Udalarekin batera, instalazioetatik 500 metro baino gutxiagora egon beharko dute kokatuta, eta tokiko energia komunitatearen helburu nagusia izango da kideei ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-onurak ematea, finantza-irabaziak eman beharrean. Irabazi horiek pobrezia eta zaurgarritasun energetikoarekin lotutako irizpide espezifikoak izango dituzte. Instalazioen ustiapena eta, ondorioz, horietan sortzen den energia tokiko energia komunitatearen aldeko doako kanon bidezko administrazio emakidaren xede izango da, eta emakida horrek zehaztuko ditu bazkideen arteko banaketa koefizienteak.
- c) Gipuzkoako Foru Aldundiak izango du instalazioen titulartasuna 5 urtez, instalazioak abian jartzen direnetik kontatzen hasita. Epe hori EEEK 2021eko irailaren 22an eman zuen Ebazpenaren 11. oinarrian ezarrita dago, eta urte horietan Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu instalazioen mantentze, jarduera eta monitorizazio lanak eta erantzukizun zibileko aseguruua. Epe hori igarotakoan, ondasunen desfektazioa egin ondoren, eta Batzar Nagusiek dagokion baimena ematen badute, ondasun horiek doan besberenduko dizkio udalari, onura publikoko

proyecto, que constituye el 38% del coste, así como a fondos propios del presupuesto de la DGMA por el porcentaje restante.

Las instalaciones solares fotovoltaicas, que tendrán el carácter de bienes demaniales de titularidad foral, serán ejecutadas en la modalidad "llave en mano", incluyendo el proyecto de ejecución o memoria técnica, el suministro de equipos y materiales, la instalación, monitorización, la tramitación administrativa, la puesta en funcionamiento y un contrato de mantenimiento de 5 años, contados a partir de la entrada en funcionamiento de la instalación.

- b) La DGMA impulsará la constitución de una CEL en el municipio, entidad sin ánimo de lucro basada en la participación abierta y voluntaria de ciudadanos y comerciantes del municipio que, junto con el Ayuntamiento, deberán estar situados/as a menos de 500 metros de las instalaciones, siendo finalidad primordial de la CEL proporcionar beneficios medioambientales, económicos y sociales a sus miembros, en lugar de ganancias financieras, las cuales incorporarán criterios específicos relacionados con la pobreza o vulnerabilidad energética. La explotación de las instalaciones y, en consecuencia, la energía que se genere por las mismas será objeto de concesión administrativa con canon gratuito en favor de la CEL, la cual determinará los coeficientes de reparto entre sus asociados.
- c) La DFG ostentará la titularidad de las instalaciones durante 5 años contados desde la puesta en funcionamiento de las mismas, período de tiempo establecido por EVE en la Base 11 de la Resolución de 22 de septiembre de 2021 anteriormente citada, durante el que se hará cargo del mantenimiento, operación y monitorización y seguro de responsabilidad frente a terceros de las mismas. Transcurrido dicho plazo, previa desfektación de los bienes y siempre que las Juntas Generales otorguen la auto-

eta gizarte intereseko arrazoiak direla medio; beraz, Aldundiak horien gainean duen erantzukizun oro bertan behera geratuko da.

- d) GFA lankidetzan arituko da udalarekin udalerrri bakoitzean tokiko energia komunitatea dinamizatzeko, sustatzeko eta publikizitatea egiteko, eta laguntza tekniko espezializatua eta beharrezko aholkularitza juridikoa emango dizkio energia komunitateak eratzeko.

- e) Gipuzkoako Foru Aldundiak berriazko tailerrak sartuko ditu Gipuzkoako herritarrei zuzendutako energia informazioko eta aholkularitzako Argitu programan tokiko energia komunitateko bazkideentzat, pertsona horiek energia gaiei buruz oro har duten ezagutza areagotzeko eta energia trebetasunak ugaritzeko, energia berriztagarria kolektiboki kontsumitzeaz gain, energiaren faktura murrizteko gai izan daitezzen, beren kontsumoak optimizatuz eta etxeetan energia aurrezpeneko eta efizientziako neurriak ezarri.

Hirugarrena.- ... (e) ko Udalak bere gain hartzen dituen betebeharrak.

- a) ... (e) ko Udalak doan ematen dio baimena GFARI eguzki panel fotovoltaikoak jartzeko lehenengo klausulan aipatutako udal estalkietan, bost urtez, instalazioak funtzionatzen hasten direnetik hasita. Epe hori amaitzean, bigarren klausulako c) letran aurreikusitakoaren arabera, doan besterenduko zaizkio udalari, eta, ondorioz, udal jabetza-koak izatera igaroko dira, eta instalazioak herri jabariko ondasun gisa sartu beharko dira udal inbentarioan.

Era berean, Udalak tokiko energia komunitateari lagako dio instalazioen ustiapena eta haietan

rización pertinente, procederá a la enajenación gratuita de dichos bienes en favor del Ayuntamiento por causa de utilidad pública e interés social, cesando, por tanto, toda responsabilidad de la Diputación en relación con las mismas.

- d) La DFG colaborará con el ayuntamiento en la dinamización, promoción y publicidad de la comunidad en cada municipio, y pondrá a su disposición una asistencia técnica especializada y el asesoramiento jurídico necesario para la constitución de las comunidades energéticas.

- e) La DFG incluirá en el Programa Argitu de información y asesoría energética dirigido a la ciudadanía guipuzcoana, talleres específicos para las socias y socios de la CEL, con el objeto de incrementar el conocimiento de estas personas en temas energéticos en general e incrementar sus habilidades energéticas para que además de consumir colectivamente energía renovable sean capaces de reducir su factura energética mediante la optimización de sus consumos y la implementación de medidas de ahorro y eficiencia energética en sus hogares.

Tercera.- Obligaciones que asume el Ayuntamiento de ..

- a) El Ayuntamiento de ... autoriza de forma gratuita a la DFG la instalación de paneles solares fotovoltaicos en las cubiertas municipales citadas en la cláusula primera, por un período de cinco años contados a partir de la entrada en funcionamiento de las instalaciones, a cuyo término, y conforme a lo previsto en el apartado c) de la cláusula segunda, serán objeto de enajenación gratuita en favor del ayuntamiento y pasarán, por consiguiente, a ser de propiedad municipal debiéndose incorporar las instalaciones al inventario municipal como bienes de carácter demanial.

Asimismo, el Ayuntamiento cederá en favor de la CEL la explotación de las

sortzen den energia, gutxienez hogeit hamar urterako, eta komunitate horrek bere gain hartu beharko ditu mantentze kostua eta instalazioen gaineko erantzukizuna.

- b) Udalak instalazio hori egiteko behar diren udal baimenak eman beharko ditu, eta baimen horien kostua bere gain hartuko du. Era berean, hitzarmena indarrean dagoen bitartean, udal estalkietarako sarbidea erraztu beharko die bai kontratista adjudikaziodunari/emakidadunari bai Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko teknikariei.
- c) Udalerrian eratzen den tokiko energia komunitatearen parte izango da Udala, eta aktiboki parte hartuko du hura sortzen, bizilagunen artean dinamizatu, sustatu eta publikitate egiteko jardueretan lagunduz.
- d) Edozein arrazoi dela-eta ezin bada sortu tokiko energia komunitatea, udalaren esku geratuko da udalerrian aurreikusitako eguzki instalazio fotovoltaikoen ustiapena, eta bermatu beharko du udal eraikin edo instalazioen autokontsumo modalitatean soilik erabiliko dela. Kasu horretan, eta instalazioa egin eta lehenengo bost urteetan, bigarren klausulako c) letran aipatutako administrazio emakida Udalaren aldekoa izango litzateke, tokiko energia komunitaterik ez dagoelako.
- e) Edozein arrazoiengatik tokiko energia komunitatea iraungitzen bada, udalak bere gain hartu beharko du instalazioen ustiapena, eta sortzen den energia erabili beharko du kontsumo publikoak estaltzeko.
- f) Instalazioen titulartasuna Udalari eskualdatu ondoren, Udalak bete beharko ditu EEEK 2021eko irailaren 22ko Ebazpenean (EHAA, 197. zk., 2021eko urriaren 1ekoa) xede dituen laguntzen onuradunentzat ezarritako betebeharrak.

instalaciones y la energía que se genere en las mismas por un plazo no inferior a veinte años, debiendo asumir dicha comunidad el coste de mantenimiento y responsabilidad de las mismas.

- b) El Ayuntamiento deberá otorgar los permisos y autorizaciones municipales necesarios para ejecutar la citada instalación asumiendo el coste que pueda derivarse de los mismos, así como facilitar el acceso a las cubiertas municipales durante el período de vigencia del presente Convenio, tanto al contratista adjudicatario/ concesionario como a los/as técnicos/as de la DGMA.
- c) El Ayuntamiento formará parte de la CEL que se constituya en el municipio y participará activamente en su creación, colaborando en las actividades de dinamización, promoción y publicidad entre el vecindario.
- d) En el supuesto de que por cualquier razón no fuera posible la creación de la CEL, la explotación de la instalación o instalaciones solares fotovoltaicas previstas en el municipio quedará en manos del ayuntamiento, que deberá asegurar su uso únicamente en la modalidad de autoconsumo de edificios o instalaciones municipales. En este caso, y durante los cinco primeros años de la instalación, la concesión administrativa citada en el apartado c) de la cláusula segunda sería en favor del Ayuntamiento, ante la ausencia de una comunidad.
- e) En el supuesto de que, por cualquier circunstancia se extinguiera la CEL, el ayuntamiento deberá hacerse cargo de la explotación de las instalaciones y destinar la energía que se genere a cubrir los consumos públicos.
- f) Una vez traspasada la titularidad de las instalaciones al Ayuntamiento, éste deberá cumplir todas las obligaciones establecidas por EVE en su Resolución de 22 de septiembre de 2021 (BOPV nº 197, de 1 de octubre de 2021) para los beneficiarios de las

Laugarrena.- Indarraldia, iraungipena eta ez-betetzeak

Hitzarmenak ondorioak izango ditu sinatzen denetik eta ordutik aurrera behartuko ditu esku-hartzaileak, eta lau urteko iraupena izango du. Energia iturri berriztagarriko autokontsumoarekin eta biltegiatzearekin lotutako pizgarri-programaren oinarri arautzaileak onartu, deitu eta argitaratu zituen EEEren 2021eko irailaren 22ko Ebazpenean ezarritako baldintza betetzeko, indarraldi epea amaitu aurretik, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hura luzatzea, harik eta eguzki instalazioak udalei doan besterendu arte, eta luzapen hori ezingo da lau urte baino gehiagokoa izan.

Hitzarmena iraungiko da aurreko klausulan aipatutako indarraldia igaro delako edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 51. artikuluan ezarritako edozein arrazoirengatik.

Aldeetako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz bete dadin eskatzeko, edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko, alderdietako edozeinek hitzarmenaren amaiera iragarri ondoren, idatziz eta modu fede-emailean jakinarazita, gutxienez hilabete lehenago. Hitzarmena suntsiarazten bada, bi alderdiek erabakiko dute zer baldintzatan amaituko diren eta ordainduko diren gauzatzen ari diren jarduketak, eta, hala badagokio, gero zer baldintzatan entregatuko diren.

Hitzarmena ez betetzeagatik suntsiarazten bada, eragindako gastuen kalte-ordaina emango da.

ayudas objeto de la misma.

Cuarta.- Período de vigencia, extinción e incumplimientos.

El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, estableciéndose una duración de cuatro años. A fin de cumplimentar el requisito establecido por EVE en la Resolución de 22 de septiembre de 2021 anteriormente citada, por la que se aprobaron, convocaron y publicaron las bases reguladoras del programa de incentivos ligado al autoconsumo y al almacenamiento, con fuentes de energía renovable, en cualquier momento antes de la finalización del plazo de vigencia, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga hasta que se produzca la enajenación gratuita de las instalaciones solares en favor de los Ayuntamientos, la cual no podrá ser superior a cuatro años.

El convenio se extinguirá bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior o por cualquiera de las causas establecidas en el artículo 51 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En caso de incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, a exigir su estricto cumplimiento, o solicitar la resolución del convenio, previa denuncia por cualquiera de las partes mediante comunicación escrita fehaciente con un plazo de antelación de al menos un mes. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y, en su caso, para la posterior entrega de las mismas.

La resolución del convenio por incumplimiento, dará lugar a la

Bosgarrena.- Jarraipen Batzordea.

Jarraipen batzorde bat eratuko da, lau ordezkari osatua: bi Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentukoak (Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko zuzendaria eta Ingurumen Zerbitzuko burua), eta beste bi Udalekoak. Horien zeregina izango da hitzarmen hau betetzen dela zaintzea, eta instalazioen egikaritzearen eta tokiko energia komunitatearen eraketaren jarraipena egitea.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, eta edozein alderdik proposatuta, batzordea bilduko da jarduketan martxa onak eskatzen duen bakoitzean.

Seigarrena.- Izaera eta araubide juridikoa.

Hitzarmen hau administratiboa da, eta, interpretatzeko eta garatzeko, aplikatzekoa den ordenamendu juridiko-administratiboari jarraituko zaio, zehazki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoari.

Alderdi parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartuko ditu soilik lankidetzaren hitzarmen honen ondorioz hartzen dituen konpromisoak dagozkien erantzukizunak.

Hitzarmen hau interpretatu eta betetzeko orduan auzirik sortzen bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardura eta eskumena izango da horiek ebaztea.

Eta esandako guztiarekin bat datozela agertzeko, bi alderdiek izenpetu egiten dute, bi aletan, esandako egunean eta

indemnización de los gastos ocasionados.

Quinta.- Comisión de Seguimiento.

Se constituirá una comisión de seguimiento, compuesta por cuatro representantes, dos del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (persona titular de la Dirección General de Medio Ambiente y de la Jefatura de Servicio de Medio Ambiente) y otros dos del Ayuntamiento, los cuales velarán por el cumplimiento del presente Convenio, llevarán a cabo el seguimiento de la ejecución de las instalaciones y la constitución de la comunidad energética local.

Durante la vigencia del Convenio, y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones.

Sexta.- Naturaleza y régimen jurídico.

El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable, en concreto por lo dispuesto, en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Cada parte interviniente asume únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contrae en virtud del presente convenio de colaboración.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo Contencioso-Administrativo.

Y en prueba de conformidad con lo establecido lo firman los comparecientes

tokian.

en duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados.

ALKATE LEHENDAKARI

**INGURUMENENKO ETA OBRA
HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA/EL
DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y
OBRAS HIDRÁULICAS,**

Sin./Fdo.:

Sin./Fdo.: JOSÉ IGNACIO ASENSIO

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

5.- IRURAKO UDALA ETA IRURA BIZI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Gorka Alkateak hartu du hitza, Irura Bizi elkarteak dirulaguntza eskaera egin duela eta hitzarmen baten bidez hau gauzatzeko proposamena ekarri dela plenora.

Alkateak gaineratu du Irura Bizi kultur, kirol eta gizarte sustapenerako elkarte dela, eta herri-giroa sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko egiten duen lana goraiatu du.

Esp.zk.: 2022DILA0010

**IRURA BIZI ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO
HITZARMENA**
Iruran, 2022ko ekainaren 3an
BILDURIK

Alde batetik, GOIZARGI ORUESAGASTI OTAÑO adinez nagusia, 72474426-T nortasun agiria duena, Iruran, paper kalea 2, 1. eskubian helbideratua eta G75237818 Identifikazio Fiskaleko Zenbakia duen Irura Bizi Elkartearen izenean.

Eta bestetik, GORKA MURUA MACUSO, Irurako Udaleko alkate-lehendakaria, egintza honetan udal idazkaria den IRANTZU ARRIZABALAGA GAINZAK lagundurik.

PARTE HARTZEN DUTE

Goizargi Oruesagasti Otaño, Irura bizi Elkartearen ordezkartzan aurkezten diren Estatutuen arabera. Estatutu hauek kontratu honi eransten zaizkio 1. zenbakiarekin.

Alkateak, Irurako Udalaren izenean eta ordezkartzan, 2022ko maiatzaren 31n egindako Osoko Bilkuran eman zitzaion ahalmenaren arabera.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkartza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

AZALDU DUTE

Irura Bizi Elkarteak eta Irurako Udalak 2021ean hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen honen diru ekarpenarekin hainbat ekintza eramán ditu aurrera Irura Bizik, aurkeztu duen memorian zehaztu dituenak, herri-giroa sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko. Orain sinatuko den hitzarmen berri honek, funtsean, 2021eko hitzarmenaren eduki bera jasotzen du.

Lehena.- Irura Bizi kultur, kirol eta gizarte sustapenerako elkarte da. Herrian sortua, herri-giroa sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko elkargune izateko.

Bigarrena.- Irurako Udalak bat egiten du elkarte honek proposatutako herri-giroa sustatzeko eta harremanak sendotzeko helburuekin.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau, Irurako Udalak 2022ko maiatzaren 31n egindako Osoko Bilkurak onartu du.

Laugarrena.- Goizargi Oruesagasti andreak adierazten du, bere ardurapean, bera eta ordezkatzén duen elkarte ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorren 13. artikulua xedatzen duen goieran.

Bostgarrena.- Toki Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek laga ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak, beti ere baldintza hauek kontuan harturik:

-lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.

-lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburua.

Aurrez adierazitakoa, eta bi aldeén arteko lankidetzá udalerrarentzat onuragarria dela ikusirik, Irurako Udalak eta Irura Bizi Elkarteak erabaki dute lankidetzá hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausula hauei loturik:

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren xedea Irura Bizi Elkarteak hainbat ekintza eramango ditu aurrera 2022 urtean, herri-giroa sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko:

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
	-Otsailak 15: elkarteko bilera orokorra.	-Death cafe: 1.saioa

APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA
-Bizikleta ginkana -Korrika.	-Kultur aniztasunaren astea. -Bigarren eskuko azoka.	-Udako zinea. -Gaztelekukoekin elkarlanean (euskaraz) -Ekainak 23: San Juan bezperako barrikotea. Udalarekin elkarlanean. -eatz cafe: 2. Saioa.	-Uztailak 2: Elkartearen eguna. Bazkaria eta DJ Bull. -Bisita antzeztua (herriko kulturaren transmisioa).

IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
-2022KO EGUTEGIA OSATZEKO ARGAZKI LEHIAKETA. -Helduentzako	-Urriak 31: Animen Gaua. Ikastola, ludoteka eta denda/tabernekin elkarlanean.	-Mendi astea.	-Bertso-babarrun bazkaria. Gazte Alaiak elkartearekin elkarlanean. -"Aulki hutsak" Joan

plazako dantzen ikastaroa. Lats dantza taldearekin elkarlanean, eta bestela, Udaleko ikastaroetan.	-Death cafe: 3. Saioa.		direnak eta gabonak. Saio berezia.
--	------------------------	--	------------------------------------

Ekintza horiek finantzatzeko eta diru-sarrerak lortzeko, elkarteak duen aukera bakarra da hainbat ekintzari sarrera-tasa ipintzea. Hori dela eta, udalari babes ekonomikoa eta baliabide publikoen erabilpena eskatuko dizkio.

- irura Bizi elkartearen betebeharrak:
 - 0 Diruz lagunduko diren proiektuak gauzatzea.
 - 0 Proiektu horiei buruzko unean uneko informazioa ematea Udalari.
 - 0 Elkarteak, herriari zuzendutako ekintza guztietan Udalaren laguntza eta babes jasotzen duela adieraziko du.
 - 0 Urtearen bukaeran, proiektuen gauzatze-mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru-kontuak egoki zuritzea.
- Irurako Udalaren betebeharrak:
 - 0 Dirulaguntzaren ordainketa zehaztutako modu eta garaian egitea.
 - 0 Irura Bizirekin elkarlanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izango duena.

BIGARRENA.- Diru-laguntzaren kopurua eta ordaintzeko era: Irurako Udalak 3.000 euro arteko dirulaguntza onartuko du Irura Bizi Elkartearentzat, aipatu dituen eta herritar guztion ongizaterako interesgarriak diren helburuak betetzeko programatutako ekintzak burutzeko.

Dirulaguntza hori kreditu honetatik ordainduko da:

2022ko udalaren aurrekontuaren partida: 1 00 00 481 334 00 00 .

Udal honek aipatutako zenbatekoaren %70 ordainduko dio Irura Bizi Elkarteari hitzarmena izenpetutakoan, eta gainerako %30 gastuen eta sarreraren balantzea aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua: 2023ko urtarrilaren 31rako, elkarteak 2022ko ekitaldian egin dituen ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko ditu, fakturen eta bestelako agirien kopiak erantsita; eta jasotako beste edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna aztertu ondoren, eta udalak diru-laguntzaren zuriaketa proposamena egingo du.

LAUGARRENA.-HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

. Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Hala ere, diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion hizkuntza irizpide berezituak zehaztuko dira.

Irura Bizik Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatuko du, printzipio hauek oinarri hartuta:

Proportzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.

Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerari lotuta egongo dira.

Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehen tasuna emango zaio euskarari.

Irura Bizi Elkartearen ordezkariak Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango

dituzte, hori baita administrazio honen lan-hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskara departamentura joz.

BOSGARRENA.- GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

a) Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian.
b) Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.

Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.

c) Proiektu eta memorieta sexuagatik bereizitako datuak erabiltzea. Diru-laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion berdintasun irizpide bereziak zehaztuko dira.

d) Irura Bizik genero-ikuspegia kontuan hartu beharko du, ondorengoak betez:

e) Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

f) Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

SEIGARRENA.- INGURUMEN BETEBEHARRAK.

Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan ondorengo alorretan:

a) Aurrezte eta energia eraginkortasuna.

b) Hondakin-frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.

c) Tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).

d) Mugikortasun iraunkorra sustatzea.

e) Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gainerako zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru-laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen-irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- IRURAKO UDALAK PREKAZIOZ LAGAKO DION LOKALAREN ERABILPEN ARAUDIA

● Irura Bizi Elkartek udalaren helbide berean izango du bere egoitza soziala. Elkartek leku egoki batean egonkortu arte lokalik beharko balu, bi aldeek adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko, trinketeko goiko solairuan dagoen bulegoa lagako dio, bere ekipamenduekin, biltegi modura erabiltzeko, adierazitako ekintza burutzen duen bitartean.

Udaletxeko ondasunen erroldan lokal hau honela deskribatzen da:

Helbidea: Ametsa Trinketea, Zilar kalea 4.

Kalifikazioa: kirol instalakuntza publikoa.

● Udalak aipatutako espazio hori Irura Bizi Elkarteari doan lagako dio bere erabilpenerako. Lagapen hori prekarioz egingo da eta ezinbesteko baldintza izango da hitzarmen honetan adostutako jarduera garatzea.

● Udalak lokalari atxikitutako honako gastu hauek ordainduko ditu: ura, argia, gasa, hondakinen kuota, lokalaren aseguru eta alarma.

● Lokalaren garbitasuna erabiltzen duten elkarten artean egingo da.

● Espazio horretan Irura Moretuz Elkartek ere du egoitza. Horri dagokion erantzukizuna bien artekoa eta solidarioa izango da.

● Udalak lokal hori erabilera anitzeko instalazioa izatea nahi du, horregatik, berau herriko beste taldeek ere erabiltzeko eskubidea izango dute. Dena den, Irura Bizi elkartek erabilerarako lehentasuna izango du eta erabileraren inguruko auzirik gertatuko balitz, Udalak erabakiko du zer egin.

● Irura Bizi Elkartek lokala utzi den helbururako bakarrik erabiliko du eta ondo zaintzeko ardura bere gain hartzen du.

● Lokala modu egokian erabili beharko da eta ekipamendu edo instalazioetan akats edo matxurarik gertatzen bada, Udalarari lehenbailehen jakinarazi beharko zaio.

● Ekipamendu edo instalazioen matxurei dagokienez, matxura erabilera arruntetik sortutakoa bada, udalak bera gain hartuko du. Aldiz, erabilera desegokiaren ondoriozkoa bada, espazio hori erabiltzen duten elkarteek bere gain hartuko dute.

- Hitzarmena, ezein indemnezio-kopuruetarako eskubiderik gabe bukatuko da.
- Udalak, interes publikoko arrazoiak medio, lagapena bertan behera utziko balu, esleipendunak ez luke inolako eskubiderik izango indemnezioa jasotzeko.
- Udal honek Irura Biziri utziko dio, bi aldeek adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko, trinketeko goiko solairuan dagoen armairua, biltegi moduan erabiltzeko.

ZORTZIGARRENA.- Irura Bizi elkarteari eta Irurako Udalari dagokie instalazioak eta azpiegiturak zaintzea eta egoera egokian eta erabili aurretik zeuden bezala uztea.

BEDERATZIGARRENA.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Nortasunaren egiaztagiria.

-Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

Ordaintzeko modua zehaztuz baimendutako ordezkariak eginiko idatzia aurkeztea, behar denean.

HAMARGARRENA.- Irura Bizik ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea ekarriko du, eta, hala badagokio, kontuan harturik zertan ez den bete eta hitzarmen honen xedea zein den, Udalari itzuli egin beharko dio dirulaguntza guztia edo haren zati bat.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek, bere horretan eusten diete beren ahalmenei, eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietatik dira, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak beharko ditu 2022ko maiatzaren 31tik aurrera, eta urte beteko indarraldia izango du.

Adostasunaren seinale, hitzarmenaren bi ale sinatzen ditugu.

Honen guztiaren berri eta fede ematen dut nik, idazkariak, adierazitako data eta lekuan.

IRURAKO ALKATEA/IRURA BIZI ELKARTEA/UDAL IDAZKARIA

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

6.- GALDE-ERREGUAK.

Ana Leunda zinegotziak hartu du hitza; 2022/127 bizikleta konponketa guneari buruzko Alkate dekretua ikusi eta, bizikleten konponketa gunea EAJ taldeak egindako eskaera baten ondorioz egingo dela eta, informazioa eskatzen dute, non jarriko den....

Gorka Murua alkateak, aparatua lortzeko egin den kudeaketa azaldu du eta kokapena adierazi ditu: Trinkete aldera joateko ranparen inguruan izango dela eta jarri aurretik 2 hilabete edo pasako direla adierazi du.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:10etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.